



# ESKAERA: 202\_\_KO EGUR LOTE SOLTEAK

## Solicitud: Lote de leña sueltos 202\_\_

**ETXARRI ARANAZKO UDALA**  
(NAFARROA)

ESKATZAILEAREN DATUAK	
Izen-abizenak: <i>Nombre-Apellidos</i>	
Helbidea: <i>Dirección</i>	Telefonoa:
Herria: <i>Población</i>	Probintzia: <i>Provincia</i>
Nortasun Agiria: <i>Documento Nacional de Identidad</i>	
En representación de <span style="float: right;">(r)en izenean</span>	

**-Onuradunak:** Oro har, herri lurren aprobetxamenduen onuradun izan nahi duten famili unitateetako titularrek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Adinez nagusia edo adinez txiki burujabetu nahiz juridikoki zilegitua izatea.
- Udal erroldan izen emanda egotea bi urteko antzinatean. Entitate lokalek epe hori Ordenantza bidez finkatuko dute.
- Egoitza herri-lurraren entitate titularrean egiazki eta jarraian izatea, urtean bederatzi hilabetetan gutxienez.
- Onuradunak entitate lokalarekin dituen betebeharrak fiskalak eguneratuak izatea.

**-Prezioa:** Prezioa udal langileak jarriko du: Udal langileak baloratuko du lotea eta prezioa balore horren bikoitza izango da.

Ordainketa bankuan egin behar da eta udaletxean ordainagiria aurkeztu edo errezibo helbideratzea eskatu.

**Izena emateko epea:** Apirilaren 9tik maiatzaren 15 arte. Eredu ofiziala erabili behar da. Eskaera sinatu eta aurkeztea baldintza hauek ezagutu eta beteko direnaren konpromisoa suposatuko du.

**-Zozketa:** Izena eman dutenekin zozketa publiko bat egingo da hurrenkera zehazteko, udal idazkariak zertifikatua, bando bidez iragarriko den ordu eta egunean.

**-Zuhaitza edo adar solteak** sortzen direnean, basozainek markatuko dituzte, eta Udalak zerrendako lehendabizikoari deituko dio interesatzen zaion jakiteko. 48 ordu izango du erabaki hartzeko eta nahi ez badu hurrengoari deituko zaio. Bakoitziari hiru dei egingo zaizkio 6 ordutan, telefonoa hartzen ez badu hurrengoari deituko zaio. Udalak zuhaitz bat kentzea oso urgentetzat joko balu, 24 orduko epea eman lezake erantzuna emateko.

**-Deitutakoa,** lotea hartu edo ez, zerrendako azken postura pasako da. Urgentziako kasutan ezezkoak ez du zerrendaren eraginik izango.

**- Beneficiarios:** Con carácter general serán beneficiarias de los aprovechamientos comunales las unidades familiares cuyo titular cumpla los siguientes requisitos:

- Ser mayor de edad o menor emancipado o judicialmente habilitado.
- Estar inscrito como vecino en el padrón municipal con una antigüedad de dos años. Las entidades locales fijarán por ordenanza este plazo.
- Residir efectiva y continuadamente en la entidad titular del comunal, al menos durante nueve meses al año.
- Hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones fiscales con las entidades locales a las que esté vinculado el beneficiario.

**-Precio:** El precio lo impondrá el empleado municipal: el empleado valorará el lote y el precio del mismo será el doble de lo valorado. Deberá abonarse en el banco y presentar justificante junto con la solicitud o indicar la domiciliación del recibo.

**Plazo de solicitud:** del 9 de abril al 15 de mayo en el modelo oficial establecido al efecto. La firma y presentación de la instancia supone el conocimiento y compromiso de las condiciones

**-Sorteo:** Se realizará un sorteo público entre todas aquellas personas que hayan dado su nombre, certificado por la secretaria, para concretar el orden de adjudicación.

-Cuando existan árboles y/o ramas caídas los trabajadores municipales marcarán los lotes y el Ayuntamiento llamará al primero de la lista para ver si tiene interés en el mismo. Tendrá 48 horas para poder decidir si le interesa, de no ser así se le ofrecerá al siguiente en la lista. Se realizarán 3 llamadas en un periodo de 6 horas a cada uno de la lista, de no coger el teléfono se le llamará al siguiente. Si el Ayuntamiento considera urgente que se retire el árbol caído, podrá disminuir el plazo de respuesta a 24 horas.

-La persona ya notificada, coja el lote o no, pasará al final de la lista. En caso de urgencia, la negativa no influirán en el orden de la lista.

**Condiciones:**

-La solicitud se realizará por escrito en el modelo oficial y se



## ESKAERA: 202\_\_KO EGUR LOTE SOLTEAK Solicitud: Lote de leña sueltos 202\_\_

### ETXARRI ARANAZKO UDALA (NAFARROA)

#### Baldintzak:

- Eskaera idatzia egin eredu ofiziala erabiliz eta Udal erregistroan aurkeztu.
- Urte berdinean etxeetako egur loteen esleipenduna izatea.
- Familia bakoitzeko eskaera bakarra izango da.

Behin esleipenduna izanik, ondoan zehazten diren baldintzak bete behar izango dira:

- Esleipendunak egurra bere aprobetxamendu propiorako soilik erabiliko du. Inola ere ez da egurra salduko.
  - Ezinezkoa da zuhaitzak bere arramekin arrastaka ateratzea. Kalterik sortuz gero lotearen jabea izango da erantzulea.
  - Pistara eta ezpondara eroritako arramak ere kendu behar dira.
  - Behin baimena emanda, eskatzaileak hilabete bateko epea izango du egurra ateratzeko. Hilabetea pasaz gero, eskatzaileak esleipena galduko du eta zerrendako hurrengo interesdunari deituko zaio.
  - Arrazoi objektiboak direla medio, Udalak hilabete bateko epea luzatu ahal izango du.
  - Egurra ateratzeko basoa lehorra egon beharko da. Lanak egin baino lehen, interesduna Udalarekin kontaktuan jarriko da, lanak baimentzeko.
  - Lotearen esleipendunak ardura osoa bere gain hartuko du. Besteak beste, istripuak ekiditeko segurtasun neurriak hartzeko konpromezua hartuko du.
- Etxarri Aranzko Udalak ez du inongo ardurarik izango esleipenak sortzen dituen kalteetan.

presentarán en el registro municipal.

- Es necesario que el interesado/a haya obtenido un lote de leña para su hogar.
- Solo se realizará una solicitud por familia.

Una vez que se haya obtenido el lote, se cumplirán los siguientes requisitos:

- El adjudicatario solo utilizará la leña para consumo propio. En ningún caso venderá la leña.
- Queda prohibido arrastrar los árboles antes de cortar las ramas. En caso de producirse daños el responsable será el titular del lote.
- Las ramas que caigan a la pista y cuneta deberán ser retiradas.
- El adjudicatario tendrá el plazo de un mes para poder sacar el lote de leña, de no ser así perderá la concesión de mismo, que será adjudicado al siguiente interesado/a de la lista. Cuando concurren razones objetivas, el Ayuntamiento podrá ampliar dicho plazo.
- Antes de procederse a sacar el lote, debiera comprobarse que el monte esté seco. Antes, el interesado deberá avisar a los empleados municipales, para que permitan que el lote se saque.
- El adjudicatario del lote de leña asume en exclusiva la responsabilidad de cualquier tipo de lesión y daños que pudiera causar tanto a su persona como a terceras personas en la corta y saca de madera. De igual manera, se compromete a observar las medidas de seguridad que tal actividad requiere a fin de prevenir accidentes y lesiones. En ningún caso el Ayuntamiento de Etxarri Aranzatz será responsable de los daños o perjuicios que puedan generarse como consecuencia de la presente adjudicación.

- Honako baldintzak onartzen ditut eta beteko ditudala aitortzen dut.

Etxarri Aranzatz, 202...ko .....(a)ren .....(e)an.  
Etxarri Aranzatz, .... de ..... del 202...

### ESKATZAILEA/ EL SOLICITANTE

**DATUEN BABESA:** Datu Pertsonalak Babesteko 1999-XII-13ko Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, jakinarazten dizugu ezen inprimaki honetan jasotako datuak Administrazio honen berezko eskumenetarako baizik ez direla erabiliko, eta Etxarriko Udalaren datu-basea osatzen duten fitxategietara bilduko direla; halaber, jakinarazten dizugu baduzula eskubidea datu horiek eskuratu, aldatu, baliogabetu eta horien kontra egiteko, Etxarri Aranzko Udalaren Erregistro Orokorreara joz.

**PROTECCION DE DATOS:** En cumplimiento de lo establecido en la Ley Orgánica de 13/12/1999, de Protección de Datos de Carácter Personal, se le informa que los datos de carácter, se utilizarán exclusivamente para el ejercicio de la competencias propias de la Administración y serán incorporadas a los ficheros que forman la base de datos del Ayuntamiento de Etxarri Aranzatz, ante el que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición dirigiéndose al Registro General.